

# Hezkuntzaren Memoria eraikiz Gradu Amaierako Lanen bidez

Begona Bilbao, Gurutze Ezkurdia, Karmele Perez

UPV/EHU

begona.bilbaobilbao@ehu.es, gurutze.ezkurdia@ehu.es, karmele.perezu@ehu.es

## Abstract

The Bachelor Degree Final Projects of the Teacher Training School in Bilbao were first developed during the course 2012-13. Taking advantage of the opportunity to establish the direction of the subject, it was proposed to create stories that will form part of the memory of education. The Final Project is a compulsory subject in primary education, Preschool and Social Education; therefore, it is an appropriate and useful area to deepen the scope in any field of education, and to shed light on the relationship of people and buildings -among others- with education. Furthermore, it is an autonomous work of 12 credits, which provides students with many opportunities to plan and develop topics of interest. With this contribution, we would like to account for the experience we have had with the students, emphasizing the importance of such research in the still incomplete history of education. We began researching the lives of “unknown” teachers; collected their testimonies, to exit the male narrative and place them into the historical memory. In the academic year just ended, some issues have been raised which will complete the memory of Basque pedagogy.

## Laburpena

Bilboko Irakasleen Eskolan 2012/13 ikasturtean zehar lehenengoz garatu direnean Gradu Amaierako Lanak (GAL) hezkuntzaren memoria osatuko duten pertsonen, erakundeen, esperientzien eta abarren historiak eraikitzea proposatu zen irakasgaia bideratzeko aukeraz baliatuta. GALa derrigorrezko irakasgaia da Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza zein Gizarte Hezkuntzako graduatan; horrexegatik da gune egokia, erabilgarria, hezkuntzaren edozein ataletan sakontzeko eta pertsonen, eraikuntzen eta abarrek hezkuntzarekiko izan dituzten loturak argitzeko. Lan autonomoa ere bada, 12 kreditukoa, ikasleari intereseko gaiak planteatzeko eta garatzeko aukera handiak ematen dizkiona. Ekarpen honetan, ikasleekin izandako esperientziaren berri agertu nahi genuke, azpimarratuz hezkuntzaren historiarako –osatu barik dagoena- horrelako ikerketek izan dezaketen garrantzia. “Ezezagunak” diren maistren bizitzak ikertuz abiatu gara, emakume haien gaineko testigantzak bilatuz, ohiko narrazio maskulinitate atertzeko eta memoria historikoan txertatzeko. Amaitu berri den ikasturtean euskal pedagogiaren memoria osatuko duten gaiak planteatu dira.

**Keywords:** Bachelor Degree Final Project, historical memory, collective memory, education

**Gako hitzak:** Gradu Amaierako Lana, memoria historikoa, memoria kolektiboa, hezkuntza

## 1. Hezkuntzaren Memoria atalez atal eraikiz

Memoria historikoa aspaldion denon ahotan dabilen terminoa da. Sarean ere ikusi dugu sarrera askotan agertzen dela, zer den eta zelan osatzen den argitu nahian.

Memoria historikoaren helburua da, bestalde, kolektiboaren formazioaz gainera, imaginarioa azalaraztea eta ahozko zein idatzizko narrazioari lekua ematea. Bada egilerik desberdintzen duena memoria historikoa eta memoria kolektiboa.

1.- Lehenengo lekuan aipatuko dugu Maurice Halbwachs soziologo frantsesa, berari zor diogu bigarren terminoaren sorrera, hots memoria kolektiboa azaltzen duena “as a memory which is mutual the members of society” (The cultural studies reader, 2012-3-11). Halbwachsek hiru mailatan antolatzen ditu era honetako ezagutzak. Alde batetik memoria autobiografikoa dago, zeinetan esperientzia pertsonalak biltzen diren. Bigarren, memoria kolektiboa, gizataldearen gertaerak modu indibidualean zein kolektiboan biltzen dituen, eta azkenean, memoria

historikoa historiagileen lanaren bidez osatzen dena. Saikapen honen arabera guk proposatzen ditugun lanak memoria kolektiboari dagozkie.

2.- Bigarren lekuan, Katherine Hite (2011) dakargu; berak *International Encyclopedia of Political Sciences* liburuan, arestian aipatutako kontzeptuak –memoria historikoa eta memoria kolektiboa desberdinduz- modu honetan erlazionatzen ditu: “the concept of “historical memory”, often expressed as “collective memory”, “social memory,” or for political scientists, “the politics of memory” refers to the ways in which groups, collectivities, and nations construct and identify with particular narratives about historical periods or events”. Memoria historikoa -memoria kolektiboa, memoria soziala edo ikerlariarentzat oroimenaren politikagintzaz ezagutzen dena-, talde, kolektibitate eta nazioak identifikaturik gelditzen diren formekin erlazionaturik agertzen da. Hitek memoria historikoa identitate politiko eta sozialari lotzen dio, gehienetan gertaera eta une politikoarekin erlazionatuta dagoelako.

3.- Hirugarren lekuan, Colmeneiro-ren hitzetan (2011: 20), memoria kolektiboa osatzeak historiografia nazional ofizialari alternatibak bilatzea esan nahi du,

hots, hitza ematea hortik kanpo geratzen diren gutxiengoei –etnia, hizkuntza, klase, generoa...-.

Ulertu dezakegu, beraz, pedagogiaren memoria osatzeko hezkuntza erabiliko dugula eta horregatik memoria kolektiboa osatzeko lanak proposatzen dizkiegu ikasleei.

Aipatzekoa da, ildo hori jarraituz, batean eta bestean memoriaren kontzientzia jorratzeko bidean hezkuntzari ematen zaion lekua eta garrantzia. Honela, Europako Parlamentuaren Kulturarako eta Hezkuntzarako komitearen lana da aipagarria, baieztatzen duenean hezkuntzak garrantzia handia daukala kontzientzia historikoa sortzeko; horrek iragana ulertzeko oinarria emateaz gainera, oraina eta etorkizuna eraikitzeko oin sendoa eraiki baitezake. Hitzez hitz *European Historical Memory: Policies, Challenges and Perspectives* dokumentuan diona da (Prutch, 2013: 30):

“Education plays a fundamental role in our gaining information about history and promoting historical consciousness, thus making it a key broker for any memory policy. For the envisaged critical culture of remembrance to be successfully promoted, educational policies would need to be aimed at securing a critical and open minded approach to conveying the past, i.e. history teaching that:

1) increases awareness of the diversity of cultures, histories and memories in Europe, and promotes mutual respect;

2) provides students with the necessary knowledge and skills to assess their own local and national past unbiasedly in comparison and relation with other European as well as global realities; and thus

3) encourages young Europeans to become active critical thinkers and participants of historical remembrance”

Europarako azalpenak gurerako balioa daukala onartuta, hezkuntzari garrantzia ematen diogu eta maisu-maistren prestakuntzan azaleratu nahi izan dugu euskal pedagogia, askotan ezkutuan geratzen dena, badugula.

Euskal Herriko Hezkuntzaren historiaren berreraikuntzan, beraz, memoria kolektiboa biltzea ezinbesteko bihurtzen da, eta horretan, emakumeak gizonen pareko aktore izan behar dira. Berreraikuntza horretan, Bourdieu-k (2000) aipatzen duen *dekonstrukzioaren* haritik, beharrezkoa da lehenengo hegemonikoa den narrazio historikoa desegitea, narrazio berria berreraikitzeke. Narrazio berri horretan, errealitate soziokulturala ezagutzeko aukera izango dugu testuinguru historikoan kokatuta. Pedagogian – eskolako aspektu guztietan- aktore izan direnen testigantzak –eurak kontatuta edo hirugarren batek-, bilduko dira bizitzako historiak osatuz.

Subjektuak hautatzen ditu gogoan hartzekoak diren gertaera eta datu garrantzitsuak memorian eta honek bildu egiten ditu. Aukeratzen ez dituen beste guztiak

ahazmenaren erreinura bidaltzen ditu, gogorapen ezera. Memoria ahalmen indibiduala izan arren, kolektiboa ere bada, taldeek ere gogorapenak dituztelako: ohiturak, mitoak, artea, tokiak, esanahia. Horrela, narrazio ezberdinen bidez eraikitzen den esanahi bereko imaginarioa sortzen da. Honek ematen dio norberari zentzua eta besteengandik desberdintzen du.

John Gillis-ek (1994:7) dakarrenez, pertsonaren bizitzari bizi izandako esperientziek eta gogorapenak zentzua ematen diote, -nor den eta nondik datorren-, eta etorkizunean bere erabakiak gidatu ditzakete. Talde gogorapenek ere modu berean funtzionatzen dute, talde identitateak bultzatu eta definitzen dituzte, taldeari esanaz nondik datorren, nortzuk diren eta nola jokatu behar duten orainean eta etorkizunean: “A single person’s memories of her life and experiences give her a sense of where she has come from and who she is, and can guide her decisions about the future. Collective memories work much the same way –they foster and define group identities, telling a group of people where they have come from, who they are and how they should act in the present and future”.

Memoria kolektiboa eztabaidagarri jartzen da askotan, batez ere diskurtso ofiziala kolokan jartzen denean. Testuinguru sozial eta politikoa modu berrian ulertzera bideratu daiteke gertaerak bizi zituzyenen ahotik jasotzean edo, oroimenak esanahi berria hartzean.

2009ko azaroan jarri zen abian Euskal Memoriaren Fundazioa, zeinen helburua da, besteak beste, “Euskal Memoria egitasmoaren bitartez, errealitate bilakatu nahi dugu geure historiaren berreskurapenaren ariketa kolektibo hori, garaiz garai, arloz arlo, herriz herri... Apurka jorratuko dugun bide ireki eta luze gisa, baina pauso erabakior eta eranginkorrek eskatuko dituen ibilbide gisa”<sup>1</sup>.

Memoria historikoa, besteak beste, herri baten tradizioan ere txertatuta aurkitzen dugu. Belaunaldi batek bestearen eskuetan jartzen duen ondarea da tradizioa, beti ere, hurrengoei irakasteko balioduna estimatzen delako. Horregatik tradizionaltzat hartzen duguna kulturari eta folkloeari lotuta aurkitzen dugu, herri jakituriarekin, eta, komunitate batekin lotuta dauden balioak, sineskerak, ohiturak eta espresabideak, batez ere ahozko ondarean -batzuetan idatziz zein argazkietan- biltzen direnak (Villanueva, 1995). Tradizioaren oinarrian gogorapen kolektiboa dago. Gogoratzea pertsonaren ahalmena da, ahalmen indibiduala (Carretero et al. 2006: 43).

Berger eta Lukman-en (1968) ildoari jarraituz tradizioa etengabeko aldaketa eta negoziaketa prozesu bezala ulertu behar da. Tradizioak, folkloreak, bizirik dirau gizarte moderno eta industrialetan, elementu bizia

<sup>1</sup> *Euskal Memoria Fundazioa/ Nortzuk gara?*  
[http://www.euskalmemoria.com/sect/eu\\_ES/4002/Nortzuk+Gara%3F.html](http://www.euskalmemoria.com/sect/eu_ES/4002/Nortzuk+Gara%3F.html)

da. Tradizioa, bada, aldatu egiten den zerbait da, berregin egiten dena, beti ere zentzu dinamikoan ulertu behar dena.

Beste batzuek, gainera, kultura eta tradizio kontzeptuak desberdindu egiten dituzte, tradizioa kulturaren parte bezala ulertuz, izaera soziokultural baten ezaugarritzat hartzen dute, beste kulturen arteko desberdintasunak markatuz. Arbasoengandik jasotako osagaiz eta herentzia kulturaletik eratorritako elementuz osatuta, baina elementu berriak ere baditu, etengabeko aldaketan ari direnak, singularitatea galdu gabe. Malinowski-k kultura eta tradizioa gizabanakoen praktika zehatzetatik desberdintzen ditu, azken hauek ez direlako beti tradizioarekin lotzen. Tradizioa bada, aktoreen diskurtsoetan eta ekintzetan islatzen da, ikerlariak egindako abstrakzio lanaren fruitu da, pentsaera eta ekintzen erregularitatearen behaketaren ondorio.

Horrez gainera, egile batzuk tradizioa ez diote talde ez ofizialei bakarrik lotzen, talde hegemoniko eta menperatzaileei loturik azaltzen dute. Tradizioa etengabeko negoziaketetan eraikitzen da, tradizio selektiboaren izenpean ezagutzen dena osatuz, hau da, negoziaketetan boteretik handiena dutenen interpretazioa nagusitzen da (Williams, 1980: 137-139 cfr. Villanueva, 1995). Williamsen iritziz tradizioa harreman hegemonikoen aspektu kulturala da eta, identitate sozialaren eraikuntzan, eragilea. Tradizioak, klase hegemonikoen tresna ideologikoa den heinean, botere harremanen legitimazioa bermatzen du, eta, jatorrien asmaketatik hartzen da. Zentzu honetan tradizioa ez da biziraupena bakarrik, ezen zerbait sortua, asmatua ere baita, alegia, lehenaren birplanteaketa orainaren mesedetan.

Kultura-ondarea, tradizioarekin erlazionatzen dena, gizarte baten oinarria eta osagarria da, aldi berean. Gizarte horretako gizakiek elkarrekin bizitzeko sortutako legeak, baloreak eta adierazpenak etengabe moldatuz eta garatuz joaten dira, lehena eta oraina bat eginaz. Horregatik, gizarte edo gizatalde baten nortasuna markatzen duten heinean, berari ulertzen laguntzen duten ondasunen multzoa gordetzen du bere baitan.

Bestalde, kultura ondareak gizarte beraren funtzionamendua erakusten digu, hots, gizarte batean iraun eta bizi diren tradizioak, ohiturak eta baloreak islatzen dira kultura ondarea agerian uzten dugun bakoitzean. Gainera, kultura ondarea gizarteratzen denean babestu egiten da, eta baita garatu ere, norbanakoarekiko eta inguruarekiko jarrera izanez eta lekuko lurraldea maitatuz. Herri bateko kultura ondarea ezinbestekoa da herriaren identitatea osatzeko, eta beharrezkoa da bermatzea etorkizun diren belaunaldi berriei transmitituko zaiela. Ardura horren zati handia familiarri, auzoari, herri komunitateari dagokie, eta beste zati handi bat eskolari, berari legitimitatu baitzaio hezkuntzaren ardura hartzeko, hau da, eskolari dagokio gizarteratzearen metaketa metodikoa bermatzea, hezkuntzaren durkheimear ikuspuntuak azaltzen duen

moduan. Herri baten kultura gauza propioa da, herri horri dagokio, berea baita. Partikularitasun horri esker unibertsaltasunaren maila lortzen da. Herri bakoitza unibertsala izatera ailegatzen bada bere historiak eta ohiturek markatzen dizkioten urratsetatik, batera bizi izan den esperientzia hori bertaratu eta bertan kokatu beharko litzateke eskolaren bitartez lantzen den curriculumean ere.

Hortxe kokatzen da gure proposamena, maisu-maistren formazioan txertatu nahi dugu gure testuinguru hurbilean eskolarekin eta pedagogiarekin gertatutakoa, izan maistren bizitzako historiak zein eskola jakinen ibilbidea edo bestelakoak.

Zergatik eta zertarako eraiki bizitzako historiak? Hau da errepikatzen den galdera, kuestionatzen duena ikerketaren objektibotasuna, bizitzako historiak narrazio subjektiboak direla, eta horrexegatik une eta gertaera historikoak ez dutela egoki islatzen. Memoria indibiduala selektiboa da, gure sentimenduak eta bizipenak edo gure harremanak egiten dute datu eta gertaerak modu batera edo bestera gogoratzea –edo ez gogoratzea-. Memoria kolektiboa ere selektiboa, kasu honetan narrazioa eraikitzeke erabiliko dugunaren hautaketa harreman hegemonikoetan aurkituko dugulako, kolektibo edo taldeak historia ofizialaren alde kokatzea eramango dituen edo erresistentziaren mogimenduetara. Ezin ahaztu da ideia hau hasiera-hasieran azpimarratu dugula, historiografia ofizialek kanpo geratu diren historiak errekonstruzio dela helburua.

Darabilgun metodologia ahozko narrazioan oinarritzen den arren, bide beretik lor daitezke dokumentu idatziak zein argazkiak, historia erakitzeko osagarriak direnak. Elkarrizketa da oinarritzeko teknika, zuzeneko zein zeharreko informazioa lortzeko balioa daukana.

Ahozko narrazioak, bestalde, testigantza dakarkio historiari, begirada bat, partikularretik aldaketa kolektiboak azalduko dituen, une bateko baldintza soziokulturalak, generoen arteko harremanak, etorkizunarekiko espektatibak eta abarrak kontatuko duena.

Ahozko historiak iraganeko egoera eta gertaerak berreraikitzeke eta interpretatzeko balioa dute, kontzientzia-aldaketak interpretatzeko eta era berean, zentzua aurkitzeko jendeak esaten duenari eta baita esaten ez duenari ere.

## **2. Gradu Amaierako Lanaren nondik norakoak**

Irakaskuntza teknikoetan ohikoa izan den Proiektuari eutsiz eta antzinako tesinaren ildotik abiatuta unibertsitate mailako Boloniako Ikasketa Planak GALa proposatzen du ekarpen bezala. Egia da berritzailea dela zenbait kasutan, diplomaturak zirenak eta gradura pasatu diren horietan, denetan, berria da. Irakaskuntza Teknikoetan aldiz, ohikoa izan da eta

oraingoan egokitzapena baino ez da proposatu. Horrela dio 2007ko Erret Dekretuak 12. artikuluko 7. atalean: “El trabajo de Fin de Grado tendrá entre 6 y 30 créditos, deberá realizarse en la fase final del plan de estudios y estar orientado a la evaluación de competencias asociadas al título”<sup>2</sup>. Hainbatetan izaera berriko irakaskuntza modalitatea da eta aukera berriak zabaltzen ditu.

2010etik aurrera UPV/EHUn gradu berriak abian jarri zirenetik GALa arautzeaz gainera antolatzen ere buruhaustek izan dira fakultate gehienetan. Bilboko Irakasleen Eskolan lan hori gidatzeko eratu den dokumentuak dioenez “ikasle bakoitzak, banaka, gizarte eta heziketa arloko proposamen berritzaile bat edo izaera kontzeptual edo enpirikoko lan bat egitean datza”<sup>3</sup>. Lan honek prestakuntza prozesuan ikasi dituen gaitasunak bildu eta garatzen ditu, norberaren interesak, ikasitako guztia eta bizitako esperientziak baliatuta. GALa Graduak azken mailako irakasgaia da, 12 ECTS kreditutakoa (baliokidetzaz eginaz ikaslearen 300 lan ordu dira). Lan hau ez da gainontzeko ikasgaien modukoa, izan ere ikasleak berak egin beharko du, banaka, eta lan orijinala izango da. GALa garatzeko, ikasleak zuzendari baten laguntza izango du, bideratzaile gisa arituko dena, kontzeptu, metodologia eta analisiaren inguruko irizpideak eta baliabideak emanez. Lan honek 300 orduko dedikazioa eskatzen dio ikasleari, ikasturte osoan zehar burutuko direnak.

Hurrengoak dira, laburbilduz, GALak Bilboko Magisteritza eskolan dituen ezaugarri nagusiak<sup>4</sup>:

Lan pertsonala eta bakarka egitekoa da, aukeratu den gai baten inguruan.

Prestakuntza-prozesu bati lotuta dago, aurrez aurreko diren eta ez diren ekintza batzuekin Aurre-inskripzioa egiteko ezinbestekoa da Graduak 168 kreditu gaindituta edukitzea.

Aurre-inskripzioa, gaiaren hautaketa, defentsa publikorako matrikula... on-line egiten dira, GAUR plataformaren bidez.

Argitu behar da, GALa aukeratutako gaiari buruzko lan sakon bat egitean datzala edo diziplina arteko proposamen berritzaile bat egin eta hura lan arloan ezartzeko estrategiak diseinatzean. Nolanahi ere,

<sup>2</sup> Real Decreto 1393/2007 por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, BOE 260, 2007/10/30. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-18770>

<sup>3</sup> Bilbao, B., et al. (2013): *Tailerra: Gogoetak eta erabakiak hartzea Gradu Amaierako Lanaren plangintzan eta garapenean*, Ebook: <http://es.calameo.com/books/00101243562d14cb8403e>

<sup>4</sup> Gradu Amaierako Lanaren Gida 2013/14, 2. orria [http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo\\_gal/eu\\_gal/adjuntos/Gida%20GALA%20Irakasleen%20Eskola%20Bilbo.pdf](http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_gal/eu_gal/adjuntos/Gida%20GALA%20Irakasleen%20Eskola%20Bilbo.pdf)

ikasleak helburu hauek bete beharko ditu: a) Graduak eremu jakin batean sakontzeko gai garrantzitsuak eta interesekoak identifikatu; b) planteatzen dituen galderak erantzuteko zer motatako lana egingo duen erabaki; c) informazioa bildu, aztertu eta modu kritikoan interpretatu; d) oroitidazkia zorroztasun akademikoaz egin; e) lana ahoz defendatu.

GALen graduaren prestakuntzan landutako arlo bat edo batzuk aipatu ahal izango dira eta edukiak titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira zehaztuko dira: datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatu; gizaritari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzi kritikoak, logikoak eta sortzaileak eman.

Ikasle bakoitzak lan mota bat aukera dezake, jakinik eurentariko bakoitzak aurrera eramateko estrategia desberdinak eskatzen dituela. Horrela, hautatzen duen gaiaren arabera erabiliko du bata edo besteak. Lau molde proposatu dira<sup>5</sup>, 1. Irudian azaltzen denez.

GALaren modalitateak	
1	Ikerketa
2	Esku hartzea
3	Sorkuntza eta berrikuntza
4	Ekintzaitza

#### 1. Irudia: GALaren modalitateak

Proposatutako bidean memoria kolektiboa eraikitzeko gaiak ikerketa delako moldean kokatzen ditugu; ikerketa teorikoan, zeinetan hezkuntza legeak eta abarrak aztertu edo alderatu daitezkeen, edo ikerketa oinarrikoan, biografiak, bizitzako historiak... bideratzen dituen.

Halaber, ikasleak GALarekin lotutako gaitasun zehatz hauek adierazi beharko ditu<sup>6</sup>:

1. Lortutako ezagutza teorikoak eta praktikoak erabili, teoria eta praktika egungo hezkuntza errealitateari lotu eta ezagutza berriak sortu irakaskuntzari eta ikaskuntzari lotutako arazoei aurre egiteko.

2. Informazio garrantzitsua aukeratu, aztertu eta sintetizatu, eskolatze prozesuak hobetuko dituzten proiektuak diseinatze aldera

3. Autonomia adierazi heziketa arloko gogoeta, argudio, iritzi akademiko eta profesionalean, baita

<sup>5</sup> *Op.cit.* Bilbao et al. 2013, 12. orria.

<sup>6</sup> Gradu Amaierako Lanaren Gida 2013/14, 3. Orria - [http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo\\_gal/eu\\_gal/adjuntos/Gida%20GALA%20Irakasleen%20Eskola%20Bilbo.pdf](http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_gal/eu_gal/adjuntos/Gida%20GALA%20Irakasleen%20Eskola%20Bilbo.pdf)

erabakiak hartu eta arazoak konpontzerakoan, banaka zein talde barruan.

4. Komunikazio gaitasuna adierazi ahoz zein idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

Aurkeztu dezagun nola bideratu daitekeen memoria kolektiborako ekarpena, pedagogiaren ikuspuntutik eraikitze proposatzen duguna.

### 3. Hezkuntzaren Historiaren haritik landutako Gradu Amaierako Lanak

GALaren gaia aukeratzekoan ikaslearen gustua eta motibazioa, eta gaia aztertze gogo eta jakin nahia dira funtsezko baldintzak. Jakin dakigu pertsonak bere onena ematen duela gustuko arloa lantzen duenean eta jakin minari jarraitzen dienean. Gainera, historiaren hurbileko aktoreen iritziak eta sentipenak jasotzeko bide apartekoa da hau eta horrek lehenarekin lotzen gaitu, nolabaiteko hurbiltasuna edo enpatia sortuz.

Bizitzako historiak, hurbileko eskolen historia, hezkuntza legeen garapena eta abarrak eraikiz, maistren eta maisuen profila berreskuratu eta hezkuntzaren historia ikuspegi berritik eraiki dezakegula ikusi dugu esperientzia honetan. Ikasleak hurbileko gaitara jotzen du, auzoko eskolaren historia berreskuratzen duenean edo amamaren maistra izeneko azagutu nahi duenean. Bestalde, Hezkuntzaren Historiaren inguruan landu diren gaien artean ikastetxe baten sorreratik gaur egunera arteko ibilbidea aztertzen du batek, eskola bateko irakasleen profilarik garapena aztertzen du beste batek, maistra baten bizitzako historia hirugarren batek, beste batzuek euskarazko irakaskuntza azken mendean arlo desberdinetan fokatuta, etabar. Denek dute arlo metodologikoan ezaugarri bera, protagonista izan den norbait edo protagonistaren familiakoa, laguna edo hurbilekoa elkarrizketatzen da galdeketaren bidez, eta ahozko historia jasotzen dute, batzuetan dokumentu idatziak eta argazkiekin batera.

Ahozko historiaren funtsa da galdeketaren bidez pertsona bati edo batzuei euren bizi esperientziaren berri jasotzea. Historia pertsonala bere bizi esperientziaren errelatoa da, baina herri edo talde baten historia osatzeko ezinbestekoa da pertsona ezberdinen bizi esperientziak osatutako errelatoa eraikitzea. Thompson-ek (1988: 266-267) hiru modutako jasoketak aipatzen ditu: bizitzako historia, taldearen historiaren narrazioa eta ikuspegi globalean oinarritutako narrazioa. Hiru ereduak baliagarriak dira GALetan erabiltzeko.

Ahozko historiaren ezaugarrien artean, subjektibitatea, gogorapena eta iturrien berezitasuna, bizipenen oritzapenak eragiten dituen sentimenduen ekarpena, freskototasuna ditugu garrantzitsuenak.

Apalategiren esanetan (1988:45) “guk, tradizio luzez, idatzizko historiari lehentasuna ematen diogu, bigarrenkotzat joz ahozko edo kontatutako historia” aldatzen joan behar da, ahozko kontakizunari garrantzia handiago emanez. Gainera, ahozko historia metodologiak gertaera historiko berbera hainbat

ikuspuntu ezberdinetatik kontatzea ahalbidetzen du. Horregatik, teknika honekin, idatzizkoarekin baino historiaren eraikuntza zehatzagoa lortzen da. Ahozko historiaren oinarrian dagoen metodologia elkarrizketarena da. Elkarrizketaren bidez datuak eskuratzen ditugu errelatoa, kontakizuna eraikiz, iturria da. Elkarrizketa etnografikoa egitea ez da nolana hiko ekintza, hurrengo pausu guztiak eskatzen ditu:

Lehenik eta behin gaia aukeratu behar da, jakin mina sorrarazten duen gaia.

Gaiaren inguruan ikerketa egin behar da, sakontasunez azagutu behar da, gero eta gehiago jakinez gero gaiaren inguruan solasaldi aberatsagoa bideratu ahal izango delako eta horrek galdeketari aberastasuna ekarriko diolako.

Gaiaren inguruan erabiltzen den hizkuntzaren berezitasunak, gaia eta hizkuntza berezia ondo menperatzea eskatzen du.

Elkarrizketatuak izango diren subjektuen hautaketa zehatza egin ostean galdegegria prestatu behar da. Era bitakoa izan daitekeenez erabakiko da ia itxia izango den edo irekia. Ikertzailearen esku geratzen da eredu aukeratzea, galdera motak planteatzea eta narrazioa ordenatzea. Garrantzizkoa izango da gertaeren kronologia jarraitzea, narrazioaren haria gal ez dadin.

Gaiak bideratzerakoan iritzirik ez da eman behar, entzutea da ezinbestekoa, modu aktiboan eta errespetoz.

Elkarrizketa toki eroso batean egin behar da.

Grabaketak egitea oso interesgarria da, saiatuz grabagailua ez dadila oztopo izan elkarrizketan, baldintzatu egin lezake eta. Iturrien erabiltzeari errespetua zor zaio.

Elkarrizketa bukatutakoan transkripzioa egin behar da, eta elkarrizketa desberdinak baldin baditugu gai baten inguruan, erantzun bateratsuak bildu eta besteak ordenatu egin behar dira.

Azkenik datuekin kontakizuna edo errelatoa antolatzen da.

Elkarrizketak -egituratua, ez-egituratua, zein erdi egituratua- datuak aztertzen diren pertsonak bizi zuten testuingurutik hartzea eskatzen du. Elkarrizketa pertsonalak eginez eta bertan lortzen diren dokumentuak aztertuta, gertaera zein eritziak deskribatu izan dira, helburutzat hartuta gune sozial, kultural eta edukatibo zabalagoan testuinguratzea.

Erabili diren galdegegria, kasu gehienetan, bizitzako historia, eskolaren historia zein gainontzeko gaiak kronologikoki ordenatzeko egituratu dira. Galderak eurak informazioa ordenatzeko eta, behar denean alderatzeko, balioa izan du. Nahiz eta galdegegria alde aurretik definitu diren, kasu guztietan zabalik prestatu dira, horrela behar denean berbideratzeko modua zabalik geratu da.

Azpimarratu nahi dugu ikerketa kualitatiboan lagungarriak direla euskarri informatikoak. Elkarrizketa jasotzeko balioa dutenak –mugikorra, mp3, mp4, bideoa, Ipad...- erabilterrazak dira informazioa edozein egoeratan batzeko, eta egokitzen dira informantearen egoerara, kasu askotan adin handiko pertsonak direla ezin ahaztuko dugu, beldurtu daitezkeenak horrelako aparetajea aurrean ikusten dutenean.

Horrez gainera, azpimarratu nahi genuke elkarrizketa paperera pasatzea lan astuna izan dela, software askearen erabilerak zein mugikorrarenak erraztu duena. Sonal, Dragon Dictation edo antzeko programak erabilterrazak izateaz gainera, malguak ere badira, nahiz eta ostean informazio kualitatiboa kudeatzeko programen bidez, Atlas.ti, Nudist..., zehaztu beharra izan.

Azpimarratu nahi dugu sareak daukan erabilera kolaboratiborako aukera, elkarrizketa (audioa, bideoa, argazkiak, dokumentu idatziak) berehala erregistratzeko aukera, nahi duenaren esku jarritz.

Website, blogak, wikiaren erako plataformak esanahi berria edo errealitate berriak eratzeko modua ematen dute, leku jakinetako (eskola, herria, etabar) fondo dokumentalak antolatzeke. Gaikako antolamenduak hezkuntzari ere lekua zabalduko lioke.

#### **4. Orain arte defendatu diren Gradu Amaierako Lan batzuk**

2012/13 ikasturtean defendatu diren GAL batzuk:

*-Emakumeak Hezkuntzan. Juliana Mujika.*

Juliana Mujika maistraren bizitzako zertzeladak errekuperatu dira “Emakumeak hezkuntzan” izenburupean. Maistra hau Emakume Abertzale Batzako kidea izateaz gainera idazkaria ere izan zen 1932tik 1935ra bitartean. Lanak emakume talde horrek euskararen alde eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko pausuak azaleratu ditu, bide batez hezkuntzaren memoriarako datuak errekuperatuz.

Honela laburbildu ditzakegu lortutako helburuetariko batzuk:

- Emakumeak hezkuntzan eman dituen lehenengo pausuen berri izatea, eta pausu horien zergatiak aztertzea.

- Hastapenetatik hasita gaur egunera arte emakumeak hezkuntzan izan duen ibilbidearen zertzelada batzuk ezagutzea.

- Emakumeak euskararekin izan duen lotura ezagutzea.

- Euskal irakaskuntzaren ibileraren berri izatea.

Ikaslearen beraren hitzetan “Bizitzako historiaren bitartez, sentipenak, bizipenak, pertsonen ahotsak... entzuteko aukera izan dugu eta horrek motibatu egin gaituela esan dezakegu. Era berean, gure interesekoa

den gai baten inguruan irakurtzea eta aztertzea ere oso atsegina izan da” (Naberan, 2013: 25).

*-Euzko Ikastola Batza. Errotatxuetako Ikastola*

Euzko Ikastola Batzaren gaineko lanean Espainiako Errepublika garaiko ikastolen eredu pedagogiko berritzailean sakontzen da, hain zuzen Bilboko Errotatxuetako ikastolan garatu zen eredu pedagogiko berritzailea aztertzen den lanean. Lan honetan II. Errepublika garaian hezkuntzak izan zuen aro oparoari esker Euzko Ikastola Batzaren loraldiaren garaia aztertzen da, batez ere garai hartako hezkuntza elebatar eta atzeratuari aurre egin eta hezkuntza eredu elebiduna ez ezik pedagogia berritzaileak ere aldarrikatu ziren. Lana lau ataletan banatzen da. Lehenean marko teorikoa lantzen da, ondoren XX. mende hasierako egoera soziokulturala. Jarraian Emakume Abertzale Batzak egindako lanari esker, ekarpen pedagogiko berritzaileak aztertzen dira Errotatxuetako kasua oinarrituta.

Amaitu berri den ikasturtean memoria historikorako lan berriak prestatu eta defendatu dira:

*-Durangoko Aratusteak curriculumean*

Lan honetan, Durangon aspaldiko urteetan ospatu izan diren aratusteak hartu dira gaitzat, nola ospatzen ziren eta jaiaren gunea zein zen azaleratuz. Gaia aztertzeko euskal curriculumaren gaineko teoriak landu eta egoera soziokulturalari buruzko hausnarketa laburra egiten da. Ondoren, Durangoko aratusteen eredu ezagutzeko hainbat galdeketa egin dira bertako jatorrizko biztanleei: Eguen Zuri eguneko ospakizunak eta Eguen Zuri kanta berreskuratu ditu egileak. Ondoren, aratusteak ospatzeko egiten izan diren ekintzak festa giroan eta honen ostean desberdinu egiten dira Inauteri hiritarrak eta Inauteri landatarrak. Lana garatzeko galdeketa etnografikoa erabili izan du egileak bai herriko jaien ezaugarriak jakiteko, bai eskoletako curriculumaz ezagutzeko. Lanak argi uzten du bertako herriko aratuste eredu ez dela ospatzen eta ospatzen den eredu hiriko inaute eredu unibertsalarekin lotzen dela edo, kasu batzuetan, Euskal herrian dauden landa-inaute eredu batzuekin.

*-Haur Hezkuntzako materialen alderaketa: Arrigorriagako Material Eraikitzailea eta Urtxintxa*

Lan honetan Arrigorriagako Eskolan erabili diren bi ikasmaterialen konparaketa egiten da. Orain urte batzuk, konstruktibismoa indartsu zabaldu zenean, eskola honetan Haur Hezkuntzako irakasleek eurek sortutako materiala erabili zuten Haur Hezkuntzako gelan. Sortutako materiala aztertu da, alde batetik; bestetik, gaur egun indartu den Urtxintxa proiektua, Elkar argitaletxeak eginiko materiala Haur Hezkuntzarako. Biak dituzte hainbat antzekotasun, izan ere oinarrian biek konstruktibismoa dutelako ardatz. Lana burutzeko gai bera lantzen duten bi unitate aztertzen dira, edukietan, arlo metodologikoetan, jardueretan sakonduz. Azterketa egiterakoan irizpide

kualitatiboa izan da oinarria, bien arteko atal ezberdinen konparaketa eginez. Eskolan egokitutako materialetan hurbiltasuna eta egokitasuna dira berezitasunik aipagarrienak. Urtxintxan orokortasuna eta unibertsaltasuna indartzen dira.

*-Goizeko Izarra ikastolako irakasleen profilaren bilakaera*

Goizeko Izarra Ikastolako Lehen Hezkuntzako irakasleen profila bere sorreratik gaur egunera arte nola bilakatu den aztertzen da. Informazioa eskuratu ahal izateko ahozko historia eraikitzeke galdeketa etnografikoaren metodologiaz baliatu da egilea, zehazki bost irakasle elkarrizketatuz. Solasaldi horietan ateratako datu guztiak transkribatu, ondo aztertu eta atal ezberdinetan sailkatu ondoren, emaitzak taula batean islatu dira. Lanaren ondorioetan argi geratzen da irakaslearen profila 1968tik hona aldatu egin dela, batez ere, hezkuntzak izan dituen etengabeko bilakaerara eta garaira egokitzeko, aspektu batzuk berdindu mantendu diren arren.

Aldaketen artean honako hauek aipatzen dira: irakaskuntzan Magisteritzako tituluaren beharra, curriculum lantzeko metodologiak izan dituen aurrerakuntzak, ikasleen dibertsitatea lantzeko modua ere aldatu da inklusibitateari garrantzia emanaz, curriculumaren egokitzapen eta laguntza profesionalaren bidez. Bestalde, 90eko hamarkadatik hona ikasleen jarreraren aldaketa nabarmenak aurkitzen dira, batez ere errespetua galtzearen inguruan. Koordinazioa ere aldatu egin da, eta herriarekin lotura galduz joan da.

*-Bilboko Santa y Real Casa de Misericordia*

Bilboko Etxe honetan izan diren hezkuntza eredu desberdinak aztertzen dira, lanaren bi ataletan. Lehenengoan Bilboko eraikinaren historia aztertzen da, bibliografia erabiliz oinarritzeko informazioa osatzeko. Ondoren, babes etxeko hezkuntza ezaugarriak aurkezten dira, ongintza etxean bizi izandako pertsona biri eginiko inkesten bidez burutu da. Atal biak batzean, garaiko gobernuen hezkuntza ereduak argi geratzen da, batez ere nazional katolizismoaren eragina ikasle horiengan identitate nazionalaren zein genero identitatearen eraikuntzan.

*-Karmelo eta Kirikiño ikastolen garapena 1993ko Euskal Eskola Publikoaren legearen ostean*

Lan hau egiterakoan, lehen testuinguratzea ikastolen sorreran eta garapenean kokatzen da. Karmelo ikastolako (1964-1993) hasierako garaiak aztertzen dira eta 1977an nola gertatzen den Ikastolen banaketa eta horren ondorioz, ikastola berri bat nola sortzen den, Kirikiño Ikastola. 1993. urteko Eskola Publikoaren Legearen ostean, ikastola batzuk publikatzea erabaki zuten eta beste batzuek pribatizatzearen alde egin zuten, etzabaida sakona izan zena euskal gizartean. Santutxuko

bi ikastolek erabaki ezberdina hartu zuten; Karmelo ikastolak publikatzearen alde egin zuen bitartean, Kirikiño pribatizazioaren alde bidea hartu zuen. Lan honetan, erabaki horrek zer nolako ondorioak ekarri dituen aztertzen da bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak alderatuz. Lana gauzatu ahal izateko lau pertsona elkarrizketatu dira, bi ikastola batetakoak eta beste biak besteakoak. Analisi hau egiteko, 1977ko banaketara begiratu behar izan da bien arteko desberdintasunak ikusi eta aztertu ahal izateko. Lanean ondorioztatzen dena da bi ikastolen arteko ezberdintasunak hasierako banaketaren ondorio direla eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen ezarpenak ez zuela aparteko ezberdintasunik ekarri, hasierakoak markatu eta indartu baino.

*-Irakasle euskaldunen sarrera Bizkaiko ikastetxe publikoetan 1979-1982 artean*

Bizkaiko eskola publikoetako euskalduntzearen lehen aroa izan zen aztertu duguna, zeinetan irakasle euskaldunen presentzia %3,5 izatetik egun dugun %80 izatera igaro zen. Bidaia zaila izan zela ikusi da. Zaila zen irakasle euskaldunak aurkitzea, maisu-maistra euskaldun gutxi zeudelako prestatuta.

Garai hartako egoera Jon Felix Atxirikak horrelakoa zela esaten da (2014: 21): "Hasiera batean oso baliabide eskasak zeuden, 'Jalgi Hadi' metodoa 'modernoa' ikasi genuen (aurreko metodoa 'Euskalduntzen' zen) eta aldi berean hasi ginen glotodidaktikarekin, hizkuntzaren irakaskuntza berritzeko ikastaroak ematen".

*-Euskal Irakaskuntzaren Memoria: Bilboko Magisteritza Eskolako Planak 1903-2010*

Bilboko Magisteritza Eskolan XX. mendean zehar erabilitako ikasketa-planen garapena ez da jarraia izan, gora behera nabarmenak izan dituela baieztatu dezakegu. Bilakaera hau sakonki azaltzeko, mendea hiru aro ezberdinetan zatitu behar da: lehenengo aroa mendearren hasieratik Gerra Zibilera arte mugatzen da. Denboraldi honetan martxan jarritako planek, 1903, 1914 eta 1931. urteetako bidez maisu-maistrek kultur formazio sendoa jasotzen dute. Bigarren aroak Gerra Zibilaren amaieratik 1960ko hamarkara arte irauten du. Garai honetako ikasketa-planek eduki ideologikoz blaituta dauden arren, prestakuntza kultural eta didaktiko eskasa eskaintzen dute. Hirugarren epea 1967. urteko ikasketa-planak zabaltzen du eta 1991.ekoak bukatzen. Aipatzekoa da magisteritza ikasketei unibertsitate maila ematen diela, maisu-maistraren lan-profesionalizazioari bultzada emanez.

Egungo ikasketa-planek nazioarteko baliokidetasuna ekartzeaz gainera gradu mailakoak dira, zabalduz horrela graduondoko atea.

*-Igorreko Santa Luzia Auzo eskola*

1920ko maiatzaren 15ean, Igorreko San Kristobal auzoko ordezkaria zen Hilario de Soloeta abadeak gutun bat bidali zuen "Junta de Instrucción Pública"ri zuzenduta, auzo eskola bat sortzea beharrezko ikusten

zutela jakinaraziz, eskola hurbilena 2,5 km eta 5 km artean zutelako. Urte bete inguru beranduago, baimena jaso eta 62 etxek hartu zuten parte, Ander Gorospe ikasle ohiak bere amari entzundakoaren arabera, etxe bakoitzak 60 egun “buzterri” jarri zituen eta 30 egun “beso”.

1922ko maiatzaren 17an, auzokideek eraikina eginda zegoela jakinarazi zioten “Comisión de Instrucción Pública”-ri eta Luis Eleizalde “A” kategoria bezala izendatu zuen eskola eta bikoitz unitario modalitatea hartu zuen.

Antonio Atutxak baieztatzen duen legez zigor gogorrak izaten ziren Delfin Ronda maisuarenak: eskuak luze-luze eginda liburuak eustea zen horietako bat eta pala bat ere eramaten omen zuen, sarritan erabiltzen zuena ikasleen eskua berotzeko inolako eruririk gabe.

“Eskolak 70eko hamarkadara arte jarraitu zuen funtzionamenduan, harik eta Olabari auzoan beste eskola batzuk egin eta ikasleak hara joan ziren arte” (2014: 22).

## 5. Emaitzak eta ondorioak

Ikasle batzuen iritzia jaso hona hemen eurentariko batek idazten duena, “lan honi esker, aurreko sasoieta egoera nolakoa zen aztertu eta ikasi ahal izan dut hezkuntzari dagokionean, eta zentzu horretan, ekarpen handia izan da niretzat” (Inuntziaga 2014:25).

GALerako planteatu dugun metodologia erabiliz lortutako emaitzak ikusita, pentsarazten digu interesgarria izan dela maistragaiei eta maisugaiei ikasteko bide berriak planteatzea, testuinguru sozio-historikoa sakonago ezagutzea lortu dutelako eta irakasle izateari zentzu erantsia aurkitu dietelako. Ildo berari jarraituz, baieztatu dezakegu maisu/maistraren profil desberdinak ezagutzeaz gainera, profilaren dimentsio desberdinak ezagutzeko aukera zabaltzen dela. Horrez gain, bizitzako historiaren bitartez, sentipenak, bizipenak, pertsonen ahotsak... entzuteko aukera izan dute, eta horrek motibatu egin ditu. Pixkanaka-pixkanaka burutu dugun lana izan da, pausuz pausu, inplikazio maila handia lortuz. Ikasleak azken emaitzarekin pozik agertu dira. Elkarlana, motibazioa eta lan egiteko gogoia aipatuko genituzke lan honen oinarritzat. Ikasleak esanekoa da “Lan hau burutzerako orduan izan dugun motibazioa handia izan da; izan ere, azpimarratzekoa da hezkuntzaren munduan emakumezkoak gizonezkoen aurrean nagusitzearen arazoak ezezagunak izatea guretzat. Horregatik, gogor aritu gara lanean ezezaguna zen guztia ezagun bihurtu ahal izateko, bai pertsonak elkarrizketatuz bai eta gaiaren inguruan irakurrituz”. Onartuko dugu esperientzia positiboa izan dela, emaitza onak eman dituen, eta ondorioz, hezkuntzaren historiaren eraikuntzan GALa erabil daitekeela, memoria historikoa berreskuratzeko eta hezkuntzaren eta generoaren arteko lotura argitu eta azalarazteko.

## 6. Aipamenak

- Alvarez, Borja (2014): *Euskal Irakaskuntzaren Memoria: Bilboko Magisteritza Eskolako Planak 1903-2010*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatua Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Apalategi, J. (1988). *Antropologia berria ahozko herri produktzioa: Ataungo herri, auzoak, pertsonaldek eta pertsonak I/IV*. Gipuzkoa: Donostiako Aurrezki-Kutxa Municipalaren kultur ekintza.
- Berger, P., & Luckman, Th. (1968). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Bilbao, B., Ruiz de Gauna, P., Fernández de Larrea, E., Pérez, K., Molero, B. (2013): *Tailerra: Gogoetak eta erabakiak hartzea Gradu Amaierako Lanaren plangintzan eta garapenean* (Ebook) <http://es.calameo.com/books/00101243562d14cb8403e>
- Biota, Itsaso (2013): *Euzko Ikastola Batza. Errotatxuetako ikastola*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2013ko uztailan defendatua Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Bourdieu, P. (2000): *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Carretero, M., Rosa, A. & González, M.F. (Compiladores) (2006). *Enseñanza de la Historia y Memoria colectiva*. Buenos Aires: Paidós.
- Colmeiro, José (2011): Nation of Ghosts?: Haunting, Historical Memory and Forgetting in Post-Franco Spain, 452°F. *Electronic journal of theory of literature and comparative literature*, 4, 17-34, [http://www.452f.com/pdf/numero04/colmeiro/04\\_452f\\_mono\\_colmeiro\\_indiv.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero04/colmeiro/04_452f_mono_colmeiro_indiv.pdf)
- Etxebarria, Gorka (2014): *Haur Hezkuntzako materialen alderaketa: Arrigorriagako Material Eraikitzailea eta Urtxintxa*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatua Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Gillis, John (1994): Memory and Identity: The History of a Relationship, In J. Gillis (ed.): *Commemorations*, (3-24 orriak), Princeton, NJ: Princeton University Press.
- Hite, Katernine (2011): “Historical Memory”, In Bertrand Badie, Dirk Berg-Schlosser, Leonardo Morlino: *International Encyclopedia of Political Sciences*. SAGE Publications (on line). DOI: <http://dx.doi.org/10.4135/9781412994163>.
- Inuntziaga, Iraia (2014): *Igorreko Santa Luzia Auzo eskola*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Iparagirre, I. (2014): *Goizeko Izarra ikastolako irakasleen profilaren bilakaera*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Lopez, Borja (2014): *Irakasle euskaldunen sarrera Bizkaiko ikastetxe publikoetan 1979-1982 artean*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate



- Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Naberan, Hiart (2013). *Emakumeak hezkuntzan: euskarazko irakaskuntza azken mendean*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2013ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- The cultural studies reader* (blog). "Maurice Halbwachs – "Historical Memory and Collective Memory – summary and review", Sunday, March 11, 2012 <http://culturalstudiesnow.blogspot.com.es/2012/03/maurice-halbwachs-historical-memory-and.html>
- Prutsch, Markus J. (2013): *European Historical Memory: Policies, Challenges and Perspectives*. European Parliament. [http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2013/513977/IPOL-CULT\\_NT\(2013\)513977\\_EN.pdf](http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2013/513977/IPOL-CULT_NT(2013)513977_EN.pdf)
- Saratxaga, Irati (2014): *Bilboko Santa y Real Casa de Misericordia*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Thompson, P. (1988). *La voz del pasado. Historia oral*. Espainia: Edicions Alfons el Magnànim, Institució Valenciana D'Estudis I Investigació.
- Uribarren, Iker (2014): *Karmelo eta Kirikiño ikastolen garapena 1993ko Euskal Eskola Publikoaren legearen ostean*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.
- Urizarbarrena, Nagore (2014): *Durango Aratustean curriculumean*. UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 2014ko uztailan defendatutako Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabea.